

Ronda kalea 25 - entreplanta
48005 Bilbao

Pelota kalea 5
48005 Bilbao
bizkaia@ekologistakmartxan.org
www.ekologistakmartxan.org

EKOLOGISTAK MARTXANEK ETA BILBOKO AUZO FEDERAZIOAK AURKEZTURIKO MOZIO PROPOSAMENA, UDALERRIAN MATERIA ORGANIKOAREN GAIKAKO BILKETA EZAR DAITEZEN

ZIOEN AZALPENA

Hondakinen kudeaketaren egungo oinarritzko araudia Hondakinen Europako Zuzentaraua (2008/98/CE) da, eta derrigortuta dago hierarkia hau betetzera: lehenengo, murriztu; gero, berrerabili eta birziklatu; eta, azkenik, erraustu eta isuri. Hori guztia ingurumen eta klimarekiko konpromisoaren baitan.

Ugaria eta anitza da Europako araudia Hondakinen Kudeaketaren alorrean, beti aurrera egiteko eta sakontzeko, besteak beste, Gaikako bilketaren esparruan eta, zehazki, Materia Organikoaren Gaikako Bilketan, Europako Parlamentuak 2015eko uztailearen 9an onarturiko Ebazpen garrantzitsua izanda, P8_TA-PROV (2015)266 testuaren arabera, "Baliabideen erabilera eraginkorra: Ekonomia zirkularrerantz aurrera egitea (2014/2208(INI))" izenburuduna, tinko babesten eta bultzatzen duena eta Batzordeari eta Parlamentu nazionalei eskatzen diena arlo horretan aurrera egiteko, datak, xedeak eta neurriak zehaztuta.

Aipatu Ebazpenaren 35. artikulua honakoa dio hitzez hitz:

35. art. Batzordea premiatzen du hondakinen arloan iragarritako legeria-proposamena beranduenez 2015. urtearen bukaeran aurkez dezan, hondakinen hierarkia arduraz aplikatuta eta ondoko puntuak jasota: **...Hondakin organikoen gaikako bilketaren betebeharra beranduenez 2020an txertatzea;** Berrerabiltzeko birziklatze/prestatze helburuak areagotzea 2030ean gutxienez Hiriko Hondakin Solidoen % 70era iritsi arte... **jakinarazpen-metodo serioan oinarrituta, eragotziko duena bazterturiko hondakinak (zabortegietan edo erraustegietan utziak) birziklaturiko hondakin gisa jakinaraztea eta metodo harmonizatu bera erabilia Estatu kide guztientzat, estatistikak kanpotik egiaztatuta...**".

Jakina da zaborraren zati organikoa etxeko hondakin osoaren % 38-40 dela, eta Europako araudiak ezarritako birziklatze-helburuak bete ahal izateko, beharrezkoa dela oraintxe bertan jardutea zaborraren osagai organikoan, hala nola gaika biltzea eta konposta egitea gaikako bilketa horrekin.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Europako Batzordeak eta abian dauden kudeaketa-planek eurek ezarritako erronkaren jakitun, saiakera egin du azken urteotan zaborraren osagai

organikoaren gaikako bilketari bultzada emateko haren eskumeneko herrialde osoan. Horretarako, ekonomikoki lagundu du 5. edukiontzia delako bilketa-sistema, giltzarekin eta pertsonalizatua, abiatzen.

Gure erkidegoan zein Espainiako estatuko beste eremu batzuetan izandako esperientzia horiek nabarmen jartzen dute agerian 5. edukiontzi pertsonalizatuaren bidezko bilketa erabat eskasa izan daitekeela, bildutako materia biztanleriaren zati urri bati eta materia-mota bati (materia gordina baino ez) mugatuz gero, eta esperientziarekin batera ez badira egiten herritarrak sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko kanpaina esanguratsuak.

Tamalez, Bilbon, hau da, hiriburuan eta, ondorioz, zabor gehien sortzen duen udalerrian, gaur arte eta praktikan ez da ekimen hori abiatu, Deustuko barrutian buruturiko esperientzia pilotuak ez baitu izan arrakastatsua izateko nahitaezko jarraipenik, jarraitutasunik eta ibilbiderik. Bilbo da EAEko hiriburu bakarra materia organikoaren gaikako bilketa ez duena.

Zaborraren osagai garrantzitsu baino garrantzitsuago honetan (hots, hondakin organikoan) ez jardutearen ondorioak Zabalgarbiren Ingurumen Zaintzarako Programako 2014ko Txostenaren azterketa arinak aditzera emandako datuetan ikusten dira: datu horien eta PRTR Isuriaren Estatuko Erregistrokoen arabera, errausketak 235.000 tona CO₂ isuri zituen 2014an, bosgarrena izanda CO₂ isurtzen duten instalazio industrialen rankinean, Petronor findegiaren (Muskiz), Bahía de Bizkaia ziklo konbinatuko zentralaren (Abanto-Zierbena), Galindoko Ur Araztegiaren (Sestao) eta Cementos Rezola lantegiaren (Añorga) atzetik.

Horrek adierazten du 223.340 tona hondakinen errausketak 235.000 tona berotegi-efektuko gas eragin dituela, hau da, kg l CO₂ baino gehiago errausturiko kg hondakin bakoitzeko. Benetan, isuriak handiagoak izan ziren, baina kontabilitate ofizialaren ondorioetarako hondakinen zati biogenikoaren (jatorria landareetatik, egurretik eta abarretik eratorritako material organikoetan dituena) errausketak ez du berotegi-efektuko gasik (BEG) isurtzen. Kalkulatzen dugu benetako isuriak 375.011 tona CO₂ direla, 217.671 tona hondakinen errausketatik eratorriak eta 157.340 tona erraustegiari atxikitako ziklo konbinatuko gas naturalaren erreketatik.

Zabalgarbin sartzen diren hondakinen guztirakoaren materia organiko edukia % 31,3koa da; gehiena etxez etxeko bilketatik dator, % 37ko edukiarekin, nahiz eta TMBko errefusen baitan materia organikoaren edukia % 45ekoa izan. Hain zuzen ere, zati bioegonkortuen helmuga errausketa da, landutako konpostak ezin duelako izan erabilerarik nekazaritzako ongarri moduan, ez baitator gaika bildutako hondakinetatik.

Isuri horien zati bat nabarmen murriz zitekeen modu orokortuan ezarri izan balitz materia organikoaren gaikako bilketa-sistema bat; materia organikoa konpostatu izan balitz kalitatezko konposta ekoizteko, nekazaritzako ongarri eta medeapen gisa baliatzearen; biztanleriak aktiboago parte hartu izan balu paper/kartoi, ontzi eta beiraren gaikako bilketan; eta gainerako hondakinak birziklatu eta berreskuratu izan balira. Nekazaritzako lurri aplikaturiko konpostaren berotegi-efektuko gasen isurketa motela da, eta luzea denboran, eta azkenean karbonoaren zati bat behin betiko sartzen da lurretan. Hondakinen errausketan, aldiz, berotegi-efektuko errekontza-gasak berehala sartzen dira atmosferan.

HORI DELA-ETA, HONAKOAK ADOSTU DITUGU

Lehenengoa.- Udalerri osoan eta biztanle guztientzat 5. edukiontzia delako bilketa-sistema, giltzarekin eta pertsonalizatua, ezartzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea, ondoren konposta behar bezalako kalitatearekin egitea bermatuko duena.

Bigarrena.- Aurreko puntuan adostutakoa 2016an abiarazten hasteko beharrezkoak diren baliabideak eta neurriak gauzatzea.

Hirugarrena.- Ezarriko den sistemak materia organikoaren gaikako bilketa izan behar du oinarri, gordina eta prestatua bereizi barik.

Laugarrena.- Materia organikoaren gaikako bilketari dagokionez, INGURUMEN HEZIKETA eta herritarren parte-hartzea sustatzea adostu dugu, giltza duen 5. edukiontziaren bitartez. Horretarako, sentsibilizazio eta kontzientziazio kanpainak sustatuko dira udalerrriaren auzo eta barruti bakoitzean, udalerrriaren baliabide propioez nahiz Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntzez zuzkituta.

Bosgarrena.- Konposta egiteko berariazko esperientzien garapena sustatzea adostu dugu, jantokiak eta eskola ortuak dituzten ikastetxeetan materia organikoa gaika bilduta.

Seigarrena.- Akordio hauek biztanleriari oro har, Eusko Legebiltzarrari, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari eta Bizkaiko Batzar Nagusiei jakinaraztea.

Bilboko Auzo Federazioaren eta **EKOLOGISTAK MARTXAN** en izenean, Pelota 5 – 48005 Bilbo (IFK G95136115) - 944790119 – bizkaia@ekologistakmartxan.org,

Bilbon, 2016ko otsailaren 12a

Sinadura